

Sozialdemokratari gabeko sozialdemokrazia?

Nola etor liteke ezkerre bere onera?

Neal Lawson, The New Statesman, 2016ko maiatzaren 13a

Erresuma Batuko laborismoak berriro izan du hauteskunde emaitza txarren bolada bat. Baina laborismoaren porrota ez da Corbynzaleen edota Blairzaleen errua. Sozialdemokrazia mundu guztian dago ajeak jota: txikituta Grezian, ezinean Frantziako gobernuan, eta atzerantz egiten ia beste leku gehienetan. Sozialdemokratak inon ez dira aitzindari ideologia, programa edo antolakuntzari dagokionez. Krisia ez da unean-unekoa, existentziala baizik; aldaketa kultural eta teknologiko sakonek eragindakoa da, zeinek alderdi sozialdemokrata guztiei arnasteko airea kentzen dieten. Sozialdemokrazia, hots, sinestea alderdi batek, nazio batean, batik bat estatuaren bidez langileen interesak kapitalaren interesen gainetik jarriko dituen egoera bat sor dezakeela, desagertzen ari da praxis politiko gisa. “Komunismoa”ren patua pairatzekotan da, soilik esanahi historikoa duen termino politiko bihurtzekotan alegia.

Baina auzia da soziala eta demokratikoa den mundu bat inoiz baina premia handiagoa dugula. Elikagai-bankuak, uholdeak... gutxitan izan da hain beharrezkoa edo agerikoa gauza soziala lehenetsi behar dela pribatuaren gainetik. Eta nonahi jendea erantzun berrien bila dabil, gizatasun partekatua gauzatzeko eta lurra iraunarazteko modu berrien bila. Demokrazia oso hedatuta dago, baina ez gure bi alderdiko sasi-sistema honetan. Hau da alderdi berriek eta hainbat online eta offline mugimenduk izan duten gorakadaren arrazoia. Frustrazioa honetan datza: bizitzeko modu bat nahi dugu zeina zeharo soziala eta errotik demokratikoa izango den, baina sozialdemokrazia praxi politiko gisa eta sozialdemokratak kredo politiko moduan XXI mendeko erronkei aurre egin ezinean -edo agian nahi ezean- dabilta orain, eta behar bada behin betiko.

Entsegu labur honen asmoa da sozialdemokraziaren gorakada eta gainbehera konprenitzea; hau ez dela “araua” izan, zeinetara itzuliko garen laborismoak, buruzagi egokiek gidatuta, parlamentuko eserleku aski irabazten dituenen, baizik Bigarren Mundu Gerraren ostean indar lerrotatze berezi batek posible egin zuen argiune laburra. Gero labur deskribatzen du sozialdemokratei aldi baterako indarra eman zien gerraosteko testuinguru positiboaren orde zerk nolako kontrako giroa sortu den. Eta azkenean sozialdemokratek, etorkizuna izatekotan, aurre egin beharreko lau erronkak aipatzen ditu:

0. Ikusmoldea eta turbo-kontsumotik haratago doan gizarte justua
1. Globalizazioa eta kapitala mugez haraindi otzandu beharra
2. Kultura eta jendeari ekiten uzteko eta harekin fidatzeko beharra
3. Ekintza eta aldaketarako aliantza berriak eratzeko beharra

Sozialdemokratek bizi duten erronka existentzialaren erreferentzia kultural gisa har daiteke *The Truman Show* filmarean amaiera. Istoria aurrera joan ahala Trumanen susmoa pizten doa mundua benetan ote den erakutsi dioten modukoa. Azkenean bere belauntzi txikian abiatzen da ezagutzeko benetan ostertzetik harago zer dagoen. Telesaiorearen ekoizleek ekaitz artifizial bat antzetzten dute bere bizitza seguru baino faltsura itzularazi nahian. Baina Trumanek eutsi egiten dio, eta plato erraldoiaren horma jotzen du; eremu hauetara mugatu da betidanik bere bizitza artifiziala. Kanpoan benetako mundu bat, mundu erreala, dauka zain. Sozialdemokratek ausardia eta anbizioa izan behar dute pentsatzeko eta lan egiteko modu zaharretatik haratago joateko, etorkizun berri bat asmatzeko. Bestela etengabe gainbehera joango dira, erabateko ahanzturan jausi arte. Izan ere, Truman ez bezala, ez baitaukate itzultzeko portu segururik. Betiko boto-ohitura leialek denbora baterako alderdi sozialdemokrata batzuk bizirik mantenduko dituzte. Esquinak hankasartze larriren bat egiten duenean litekeena da ere boterera iristea... baina inon ez dute benetako indarririk izango neoliberalismoaren erauntsiari eusteko, are gutxiago jendartea eraldatzeko. Hauek izango dira sozialdemokratentzako unerik hoberenak, dagoeneko zuloranzko aldapan behera doazelarik.

Argudio nagusia hau da: mundu bat behar dugu zeina zeharo soziala eta errotik demokratikoa izango den, baina sozialdemokraten praktika, beren estatismoa eta sektarismoa, agintea eta kontrola izateko seta, hazkundean jartzen duten enfasia eta mundu mailako erakundeak sortzeko borondate eza kontrajarrita daude garai hauetako *Zeitgeist*-arekin¹, zeinak pluralismoa, konplexutasuna, tokian tokikoa eta globalizazioa eskatzen duen, eta kontrajarrita berdintasun askoz handiagoa duen bidezko jendarte batekin ere, zeina

1 Garaiaren izaera edo joera

mugarik gabeko kontsumoarekin bateraezina den. Gaur sozialdemokrazia praxi politiko gisa ez da gauza XXI menderako mundu sozialdemokratiko bat sortzeko. Beraz, posible al da sozialdemokratarik gabeko sozialdemokrazia bat? Edonola ere, hala izatea beharrezkoa ote da?

Dena galdu da

Sozialdemokratak pasa den mendeko indar nazional eta laboralen fruitu dira; horien ordeztu sortu diren indar global post-industrialak erabat etsaituta daude haiekin. Erretirada hotsa jo dute, ez beren gidariak ezgauza direlako, edota medioek ematen dieten egurratetik, baizik XX mende erdialdeko unerik gozotzen izan zituzten baldintza material eta kulturalen ondoren etorri diren indarrek eta kulturak beren kredoaren sustraiak erauzten ari direlako.

1979an Eric Hobsbawm historiagile marxistak *The Forward March of Labour Halted*² liburu sonatua idatzi zuen. Batzuren ustea ustela gertatu zen, ezen sinetsi baitzuten aurrerapidea soilik urte hartan gelditu zela, hain zuzen Thatcher anderea agintera iritsi zelako. Baina Hobsbawmek iragarri zuena zen laborismoak zuen oinarria, langile-klasea, luzaroan klase hazkorra eta egunen batean unibertsala izango zela uste zena, benetan urritzen hasi zela noiz, eta jada 1945rako. Beraz, laborismoaren boterea gailurrean zegoenean, sozialdemokraten indar iturri nagusia, beren klase-oinarri bateratua, jada murrizten hasia zen.

Langile-klaseak eman zien sozialdemokratei gihar kultural eta organizazionala. Lan-esperientzia komuna taxutu zuen, komunitate eta aisialdi zaletasun bereak zituelarik. Terminologia marxistaren arabera, berezko eta bere buruarentzako klase bat osatzen zuen. Hots, bere inguruabarren eta beharizanen kontzientzia zuen. Langile-klase hau, fordismoa gauzatzen zuten lantegietan enplegatuta zegoena, hau da, nork bere lekua zuten muntaia-lerroetan, laborismoari botoak eta dirua ez ezik gobernantzako sistema burokratiko eta teknokratiko bat eman zion. Halaber, sozialdemokraziari bulegoko enplegatuen eta zuzendaritzaren ateak ireki zitzaizkion. Leninek esan bazuen komunismoa soviet eta elektrifikazioaren batura zela, sozialdemokrazia litzateke langile-klasea, burokrazia eta teknologiaren batura.

Sozialdemokraten “Urrezko Aro” delako hau, gutxi gorabehera 1945 eta 1975 bitartekoa, posible izan zen aurretik gertatu zena medio: 30etako hamarkadako depresioaren eta ondoren lehertu zen gerraren esperientzia. 1945ean inork ez zuen nahi 30etako miseria eta prekaritatea itzul zitezen, eta gerra garaiko solidaritateak erakutsi zuen zer egin zitekeen “guztiok ontzi berean” geundenean. Eta Jeremy Gilbertek dioen legez, laborismoa 1945 baino lehenago ere ari zen herrialdea gidatzen: urrats txiki bat izan zen gerrako koaliziotik herrialde osoa kudeatzera. Horregatik, Urrezko Aroaren sarrera girotzeko musika eta sarrera unea finkatuta zeuden.

Azkenik, Sobiet Batasunaren mehatxua ere hor zegoen. Gaur mundu mailako politikan kapitalismo eta erlijio mota desberdinak lehiatzen dira. Baina Urrezko Aro hasierako urteetan kapitalismoak alternatiba bizi, bizkor eta hazkor bat bazuen: komunismoa. Egun ia ezinezkoa gertatzen da irudikatzea sozialismo errealek zenbateraino parekatu zituen gerraosteko indarrak, langileen alde eta kapitalaren kaltetan. Kapitalaren jabeak izututa zeuden, mendebaldean ez ote zitekeen iraultza bat gertatu indar armatuak frontetik itzultzen zirenean. 60etako hamarkadan bazirudien sobietarren planifikazioaren produktibitatea gailendu egingo zitzaizela AEBen merkatu libreei. Gerraosteko itun guztia hein handi batean SESBari esker iritsi zen.

Amaitu ote da borroka?

Baina klase, gobernantza eta Gerra Hotzaren lerrokatze honek engainatu egin zituen sozialdemokratak, hauek uste izan baitzuten kapitalarekiko gerra amaitu zela, ez aldi baterako, betirako baizik. Aro errebisionista honetako biblia Tony Croslanden *The Future of Socialism* izan zen; uste zen ekonomia mistoak iraun egingo zuela, eta auzi politiko bakarra zela erabakitzea etengabeko hazkundearen fruituak zenbateraino birbanatu behar ziren. Gainera, sozialdemokratak oker zeuden ere gerraosteko itunaren meritua gehienbat euren zela sinetsita, eta ez klase, teknologia eta mundu mailako politikaren lerrokatzearen ondorio. Dena Attleer³ esker gertatu omen zen, ez testuinguruaren ondorioz; surflariari, ez olatuari esker, alegia.

Baina egoera aldatu zenean sozialdemokratak ez ziren aldatu. Itxuraz irautekoa zen kontsentsu aro honen azal azpian sozialdemokratei hainbesteko indarra eman zieten faktoreak, Urrezko Aroa posible egin zutenak, izugarriko erosioa jasaten ari ziren. Fordismoaren ordeztu post-fordismoa zetorren, eta industriaren ordeztu zerbitzuen sektorea; klase-identitateak ez ziren hain zurrun, definitu eta ebidenteak. Lantegiak itxi ahala, sindikatuen indarra zeharo ahuldu zen, gerra eta depresio garaiko oroitzen bezalaxe. Eta Sobiet Batasuna erortzeaz zela estatu burokratikoaren bitartez eragindako aldaketaren mugetara iritsi ginen. Azkenik, noski,

² Laborismoaren aurrerapide etena

³ Clement Atlee, alderdi laboristaren liderra 1935 eta 1955 bitartean eta Erresuma Batuko Lehen Ministroa 1945 eta 1951 bitartean.

komunismoa kapitalismoaren lehiakide azkarraren mehatxu zen aldetik 1989 urtea baino askoz lehenago desagertu zen.

Baina sozialdemokratek jokatzeko oraindik posible balitz bezala Urrezko Aroa, edo gutxienik hauteskundeetan nagusitzea, buruzagi eta politika egokiak topatuz gero bederen. Bi kontu hauek badute garrantzia, baina liderrak surflariak bezalakoak dira: aurrerantz eramango dituen olatu bat behar dute azpian. Sozialdemokraziaren bagak joan eta etorri egin dira. Eta estatuaren aginte-palankak herdoildu egin dira; jendartearekiko zegoen konexioa galdu da.

Sozialdemokratentzako eremu berri lazgarria

Kontua ez da soilik sozialdemokraziaren motorra gelditu izana. Bere ordeaz indar berriak sortu dira, proiektu sozialdemokratikoarekin etsaituak.

Lehenik, sozialdemokratek gerraosteko itunean bertan goxo egin zutelarik, kapitalismoa globalizatu egin zen, baita gaiztotu ere. Globalizazioak esan nahi zuen ahuldu egin zirela muga nazionalak, ondorioz politika nazionalak, eta bide batez sindikatuen negoziatzeko ahalmena. Kapitalak bazuen aukera zerga eta soldatarik txikiak ordaindu behar ziren lekutara mugitzeko. Honek ez du esan nahi nazio mailan gehiago egin ez zitekeenik, baina mugak begibistakoak dira, gero eta estuagoak. Googlek ordaindu beharreko zergeri iskin egitea edota aldaketa klimatikoa dela ere, politikaren etorkizunak globala izan behar du, baina politika sozialdemokratikak tinko eusten dio eremu nazionalari.

Gaur politikak burtsako traderren eta bono-merkatuen esanetara daude. Politika boteretik aldentu delarik, hauteskundeak irabazita ere sozialdemokraten gobernu-ekintza zeharo baldintzatuta legoke. Mitterrand presidentetzara 1981ean iritsi zenetik defentsibana egon dira. Sozialdemokraten krisia hain larria izan zen, non New Labourrek finantziarizazioa bultzatu egin baitzuen bere proiektuak ordaintzeko baliabideak lortze aldera. Deabruarekiko tratua honen poderioz, ordea, epe laburrean baino ezin izan zuten bete emandako hitza, izan ere, City-ari etekinak handitzeko eman zizkieten askatasuneko sistema guztia krisirantz eta austeritate arora eraman baitzuten. Epe luzera, berriz, politikaren eta korporazioen boterearen artean gero eta tarte handiagoa irekiaz, City-ari emandako nagusitasunak sozialdemokratei galarazi egin zien sekula berriro agintean zinez eragiteko aukera.

Birakada global honen beste emaitza izan da politikara itzultzeko aldarri lotsagabe lokal eta nazionala indartu duela. Hala gertatu da Eskozian SNPekin eta, nola ez, UKIPekin. Politika era honen erakarmen emozionala benetakoa da eta auzi honi heldu egin behar zaio, baina ez uste izanda kapitala orain humaniza daitekeela soilik nazio eta tokiko eremuetan eraginda.

Haatik, kapitala ez zen soilik globalizatu; neoliberalismoaren harrak jo zuen ere. Kapitalismoaren aldaera gordin hau sistematikoki paretik kentzen saiatu da bere merkatu librearen ikuskerak dituen alternatiba guztiak. Sozialdemokratek oraindik sinesten zuten arren, baita horren arabera jokatu ere, gerraosteko ituna erabat sendoa zela, neoliberalak arrakastaz ekin zioten itun horren osagaiak banan-bana desagiteari. Bereziak estatua erabili zuten ondasun komunak erroak izan zitzaizketen leku eta guneei erasateko. Privatizazioaren xedea ez zen industria zaharretan amaitzen; helmugan zeukan gure gogoa ere, gure banako kontsumitzaile identitatea prestatuta baitago behar genituela ez genekien gauzak erosteko, ez daukagun diruaz eta ezagutzen ez dugun jendea harrituta uzteko.

Alderantzira, turbo-kontsumo honek ingurumenean izugarritzko eragina du. Gaur neurrigabeko klima aldaketa baten atarian gaude, baina sozialdemokratek beti agindu izan dute "gehiago": aberastasun material handiagoa "beren jendearentzat". Sozialdemokratentzat langilearen TB pantaila ezin da sekula aski handia izan, ugazabarena are handiagoa bada. Beraz, ez dira gauza irudikatzeko lurak mugak ezartzen dizkiola hazkunderari. Azken aldion zirkulua koadratzen saiatu dira "hazkunde berdea" ahotan hartuta, baina hau aitzakia bat besterik ez da kontsumo gehiago izateko, planetak ezin duelarik inola ere hau onartu. Sozialdemokrata askok klase ertainen aitzindari gisa kontsumoaren aurkako agenda baztertzeko dutelarik, aldaketa klimatikoak pobreen bizitza hondatzen du uholde, gosete eta aire zikina medio. Era berean, turbo-kontsumoan oinarritutako jendarte batek edozein solidaritate lotura eta enpatia apurtzen du, definizioz berekoia eta lehiakorra delako. Turbo-kontsumismoak ondasun komuna akabatzen du eta, bide batez, baita sozialdemokraten itxaropenak ere.

Sinpletik konplexura

Azkenik, hor dugu gobernu-kulturaren auzia. Urrezko Aroa adeitasun, paternalismo, burokrazia eta hierarkia aro bat izan zen. Jendarte eta bizitza are seguruagoak ziren, baina askoz arau eta muga gehiago zeuden. Hein batean honegatik, 60etako hamarkadatik aurrera jendeak askeago eta liberalagoa izateko antsia zuen.

Lana eta bizitza aurreikusteko zailago bilakatu ziren, baita irekiago ere. Iraultza digitala, sare sozialak eta sarean antolatutako jendarte baterako birakada orain iraultzen ari dira gure ikusteko, pentsatzeko eta jarduteko modua. Mundua plurala, konplexua, barreiatua eta anitza bihurtu da.

Haatik, sozialdemokraziaren kultura trabatuta dago bere pentsamoldean: goitik beherakoa, estatista eta elitekoa. Bere eskaintzaren baldintza zen, eta oraindik ere bada, zuk gobernu sozialdemokrata bat hautatzea, zeinak zuretzat gauzak egiten dituen; horren truke esker onekoa izan eta berriro ematen diezu botoa. Alderdia besterik gabe botoak biltzeko makina bat da, amairik gabeko banaketa politika batean. Kredo honek ezin du beste alderdi progresistekin lekua partekatu, eta areago, ezin ditu haiek toleratu, oztopo gertatzen baitira estatua kontrolpean jartzeko asmoa betetzeko, eta beraz, jarduteko gaitasuna izateko. Proiektu honen alde ez dagoen edonor definizioz bere aurka dago.

Baina lantegietako produkzio-lerroek definitutako aro batek -zeinak bere ordena, egitura eta hierarkiak zituen- bide eman dio Facebooken garaiari: beronetan nahi dugunarekin konektatzen gara, nahi dugunean eta nahi dugun moduan. Hainbat taldetako kide egiten gara eta leialtasun arinagoak ditugu. Mundu honek aukera itzelak eta mehatxu beldurgarriak dakartza, baina gustatu ala ez orain bizi garen mundua dugu. Mundu honetan erantzun guztiak dituen alderdi bereziaren ordeztokizun konplexuago bati ireki behar diogu atea, eta etorkizun hori indar anitzen artean negoziatuko da, ez da inposatuko.

Baina konplexutasuneranzko biraketa saihestezin eta ukaezin honek areago okertzen du berez aski larria zen sozialdemokraten egoera; hasteko, demokraziari dagokionez. Bizi dugun demokraziaren krisia demokrazia errepresentatiboarena da. Ez dago ordezkatu beharreko klase bakar bat, ezta estatu indartsu bat ere, zeinen aurrean hura ordezkatu. Gero eta jende gehiagok ez du behar edo ez du nahi beste norbaitek ordezkaria dezan: eurek egin dezakete beren kabuz. Hau da demokrazia era zuzen eta deliberatibo berriak agertzearen arrazoietako bat. Sozialdemokraziak zuen pribilegiozko kokapena, jendearen aitzindari izatekoa, bukatu da, eta ez da egundo itzuliko.

Bigarrenik, eraldatze hau inon premiazkoa bada, lan munduan da, non teknologia desberdinen ondorioz zeharo alda daitekeen lan egiteko modua eta lekua, eta areago, lan egiteko aukera bera. Ez dago argi zenbateraino, baina kopuru batzuk aipatzen dira: enpleguen %10 eta %46 bitartean gal daiteke inteligentzia artifiziala, robotak, algoritmo aurreratuak, *big data*⁴ eta 3D inprimitzeko teknika medio; dena dela, aldaketa dramatiko ari da gertatzen lan merkatuen nolakotasunean. Honi dagokionez sozialdemokratak trantze latzean jarri dituzte: defenditu egin behar dute ziurrenik galdu egingo den lana, baina era berean monotono, nekagarri eta arrunta dena, ogibidea bermatzen badu ere. Sozialdemokratek Kodak dirudite Instagramen mundu batean. Erresuma Batuko sozialdemokraten frankizia da fronteko lerroan lehena, besterik ez bada "Lanaren alderdia" izena duelako!

Interregnoa

Eraginak desberdinak izanagatik, krisiaren unibertsalitasunak adierazten digu zerbait itzela gertatzen ari dela. Krisiak hainbat agerpen ditu: Greziako pasokifikazioa; Espainiako Podemosen igoera eta PSOEren jaitsiera erlatiboa; Alemaniako SPDren babes urri eta geldoa; Frantziako gobernuan dauden sozialisten ahulezia, eta are sozialdemokraziaren krisia Eskandinabian. Erresuma Batuan krisiaren adierazgarri da SNPk Eskozian duen hegemonia, laboristen lekua hartu duelarik ezkerreko alderdi gisa, eta bigarrenik laborismoan corbynismoak izan duen gorakada handia -barnean izandako nolabaiteko pasokifikazioa-; honek, AEBetan Bernie Sandersen matxinadarekin batera, agerian uzten du sozialdemokraziaren porrota. Baina barneko iraultza batek ere ez du alde batera utzi izatez sozialdemokrata den prozesua. Ezker muturreko sozialdemokrazia ere oraindik XX eta XXI mendeen artean gertatu den astinduak jota dago.

Baina uneak eskatzen du oso bestelako jendarte batera eramango duen ekinaldi politiko bat. Lehenengo aldiz 30etako hamarkadatik hona kapitalismoa ez da baliagarria biztanleriaren zati handi batentzat, gero eta handiagoa den multzo batentzat. Gazteek espantuzko zorrak leporatu dituzte unibertsitatean, etxebizitza ordaindu ezinik daude eta ez dute esperantza handirik ondo ordaindutako lan segurua topatzeko. Prekariatua, hots, zero orduko kontratuekin⁵, unean-uneko ekonomia eta prestazio gero eta urriagoekin doi-doi bizirauten duen jendea, klase emergente berria ari da taigabe bilakatzen, baina ez dauka ordezkariarik. Eta diru-sarreraren eskalan goraxeago, enplegu esternalizatuak, profesionaltasunaren gainbeherak, gero eta gehiago

4 Datu kopuru handiak metatu eta horien artean patroi errepikakorrek aurkitzeko prozedurak. *Big Data* fenomenoari "eskala handiko datuak" izena ere ematen zaio.

5 **Zero-hour contract** delakoan enplegatzaileak ez du gutxieneko ordu kopuru bat ziurtatu beharrik, eta langileak sina dezake akordio bat behar denean prest egoteko; beraz, kontratu honetan ez da ordu kopururik, ez ordutegirik zehazten. Oso erabilia da nekazaritzan, hotel eta kolektibitateetan, hezkuntzan eta osasungintzan.

kontsumitzeko eskariak eta honek eragiten duen larritasun eta segurtasun ezak... horrek guztiak debate politikoan kokatzen ditu hautesleen gehiengoaren osagaiak, zeinak lehenago programa sozialdemokraten irismenetik haratago baitzeuden. Horri erantsiz gero beste finantza-krisi bat eta hondamendi klimatikoak, hor duzu ezker demokratiko berri batek heltzeko moduko konbinazio indartsu bat; hori bai, eskuin autoritario eta populista batek ere gauza bera egiteko aukera luke.

Zorionez, badago beste aldarre itxaropentsuago eta baikorrago bat. Kapitala liberatu zuen teknologia beraren bultzadaz, gero eta hedatuago dago *ethos* kolektibo berri bat sortzen ari delako sentipena. Sarean antolatutako jendarteak ez da perfektua eta baditu bere akatsak, baina on- eta offline ekinaldi, kanpaina eta enpresa berrien pisuak agerian uzten dituzte solidaritate berriek mundu digital batean dituzten aukerak. Kooperatiba berriak, ekinbide sozialak, partekatzearen ekonomia, P2P⁶ ekonomia, alderdi berriak (esaterako Danimarkako Alternativet edota Erresuma Batuko Women's Equality Party, zeinetatik asko ikas dezakegun), internet bidezko kanpaina masiboak, oinarriko militanteak etxebizitza eta espazio publikoekin eta eraldatze ideia berriak garatzearekin kezkatuak, adibidez lanaldi murriztua, oinarriko errenta eta estatu-boterearen itzulera eta demokratizazio beteak... hauek eta beste batzuk Urrezko Aro berri batean saiatzen ari dira. Gramsciren hitz klasikoaren arabera, interregno bat dugu hau: “zaharra ez da hil eta berria artean ez da jai”.

Modernitatearen erronka

Baina ziurrenik ez dira sozialdemokratik izango beldurra eta esperantza konbinatuta aukera politiko berri bat sortuko dutenak, goitik behera aldatu ezean, bederen. Honek funtsezko lau elementu eskatzen ditu:

Lehen erronka da bidezko jendartearen esanahia berdefinitzea. Sozialdemokratek aintzat hartu behar dituzte bizi-kalitatearekin lotutako kontuak, eta ez soilik materialak, kontsumo kantitatearen ingurukoak. Gauza gehiago ordez, sozialdemokratek azalpen sinesgarri bat eman beharko dute beste kontu batzuk nola gehitu: denbora, gune publiko, aire garbi, komunitate eta autonomia gehiago. Honek garamatza lanaldi mugak ezartzera, lantokietako demokrazia eta jabetzari buruzko politikak, oinarriko errenta eta karbonoaren gaineko kontrol zorrotzak, hots, desazkundera, ez berdez pintatutako hazkundera.

Bigarren desafioa da internazionalismoan erabateko aldaketa bat egitea. Kapitalismoa naziotik harago joan bada, sozialdemokraziari ez zaio hari jarraitzea beste aukerarik geratzen. Sozialdemokratek arautu eta kontrolatu egin behar dituzte merkatuak, jendea edo lurrari kalte egiten diotenean. Noski, hau zaila da, eta noski, burujabetza nazionalaren zati bati uko egitea da. Baina benetan hau aspaldian gertatu zen. Gai honen inguruko politika Europa mailan hasiko litzateke, esaterako kontinente guztirako gutxieneko soldatekin, edo are hobeto, oinarriko errentarekin; migranteentzako solidaritate-funtsekin eta sozietate-zerge harmonizatuekin. Azkenean litekeena da erakunde global berriak behar izatea, korporazio multinazionalak eta nazioarteko finantzak sozializatzen lagunduko dutenak. Hala egin zen Bretton Woodsen lehen Urrezko Aroa bultzatzeko; egingarria izan beharko luke -izan behar du- interneten aroan.

Hirugarren erronka kulturala da. Sozialdemokratek benetan utzi beharko dute, behingoz baztertu, aurrerapidearen ahots bakarra eurak direlako ustea. Egun ez dago abangoardia hautatuentzako lekurik; hauek borondate onez bada ere, jendearentzat egiten dituzte gauzak, ez jendearekin. Sozialdemokratek beren kokapen berria ezagutu beharko dute: herritar global eta sareentzako ahalduntze-iturri bat besterik ez dira izango, garrantzitsua izanagatik. Hau da laborismoak egin behar duen hautu estrategiko bat: Noiz edo noiz boterera iristen saiatu, eskuinak huts egiten duenean, jendarteak administratuaz, baina ez eraldatuaz? Ala kontsentsu berri bat eraiki, beste alderdi eta indarrekin batera negoziatuta: aliantza progresista bat, alegia? New Labour izan zen moduko aterpe handi bat ezinezkoa da austeritatearen eta krisi ekonomikoen garaian. Aukera bakarra da kanpaleku handi bat, non laborismoa izan litekeen dendarik handiena, baina zentzua soilik beste hainbat ahots eta indar progresistekin batera duelarik.

Aurre egin behar diogun mundua egun hain konplexua denez, berau kudeatzeko gobernu-sistemak ere aski konplexua izan behar du. Politikaren palankei eragin ordez, etorkizuneko politiko progresistaren eginkizuna plataformak eta guneak sortzea da, non jendeak berak gauzak aldatu ahal izango dituen. Rol hau apalagoa da, baina funtsezkoa eta guztiz egingarria sarean antolatutako jendarte batean, zeinetan internet bilakatu den giza-kulturaren lotune nagusi. Sozialdemokratek beren burua ikusi behar dute kide gisa aldatetarako aliantza progresista askoz zabalagoetan, eta ez jakinduriaren eta ekintzaren gordailu bakarra bailiran; jendarte zibilaren zerbitzari izan, eta ez hartu jendea boto-masa huts gisa, gero estatua gidatzeko lagungarri. Alderdiak benetan demokratizatu egin beharko dira, boterea lokalizatuaz eta gai jakinetan lankidetzarako

6 “Peer to peer”, parekideen artekoa.

plataformak eraikiaz, esaterako energia berriztagarrien, finantzen eta medio berrien inguruan. Jauzi kultural honen froga erabakigarria da ordezkartza proportzionalaren alde egingo duten ala ez⁷.

Eta laugarrenik, honetatik sozialdemokratek topatu eta bultzatu egin beharko dute aro berri bat, aldaketarako ekintza. Hau ez da hauteskundeetarako bloke huts bat. Klase-, indar- eta mugimendu-aliantza bat da, gizarte justu baterako eraldaketa eratu eta sostengatuko duena. Hau da politikaren artea.

Berritu ala ordezkatu?

Honekin ez dut esan nahi alderdi laborista amortizatuta dagoela. Badira parlamentario on batzuk, esaterako Jon Cruddas, Lisa Nandy, John McDonnell, Steve Reed, Jon Trickett eta Clive Lewis, zeinek ikusten duten alderdia zenbateraino dagoen zuloan sartuta. Baina sozialdemokratak kateatuta duten materialismo, nazionalismo, sektarismo eta zentralismoak ez die lagako, horietxek baitira sozialdemokrata izatea definitzen duten ezaugarriak.

Sozialdemokraziaren Urrezko Aroa bere garaiaren emaitza izan zen. Orduan hierarkiak, eliteak, agintea eta kontrola ziren nagusi. Intentzio ona zuen eta gauza on batzuk egin zituen. Baina bitartekoek beti taxutzen dituzte helburuak. Jendearentzat egin zituen gauzak, eta ez jendearekin edota haien alboan jarrita. Jendarte justu bat sortzen laguntzeko ahalmena, beraz, beti mugatuta izan zen, eta atzeraldi populista eta indibidualista jasateko zorian; hala ikusi genuen neoliberalak parean zuten guztia garbitu zutenean.

Orain aldi berri baten une gailenean gaude. Oso kontrako iritziak pizten ditu, eta berarekin batera erronka adina aukera dakar. Baina XXI mendeko sare-jendarteak bere baitan dauka sedukziorako aukera, baita pentsatzeko eta ekiteko era berdinkoiago eta demokratikoagoak ere. Mundu honetan bitartekoak eta helburuak konbina daitezke: jendarte zuzen bat sor dezakegu non jendeak bere patuaren kontrol kolektiboa hartzen duen.

Sozialdemokraziak garai batean iruditeria herrikoi nazionala bereganatu zuen kapitalismoak porrot egin zuelako, eta beren garaiko izpiritu burokratikoaz baliatu zen jendarte hobe bat egingarri izan zedin. Orain ere kapitalismoa porrot egiten ari da. Urrezko Aro berri baten zantzuak ikusten ditugu. Modernitatea, bere irekitasuna, horizontaltasuna eta konektibitatea moldatu egin behar dugu emaitza balio zeharo sozialak eta errotik demokratikoak izan daitezen.

Keir edo Keira Hardiek⁸ gaur alderdi bat sortu behar balute XXI mendea soziala eta demokratikoa izan dadin, ez luke inola ere Alderdi Laboristaren antzik izango. Alda ote daitezke laborismoa eta beste alderdi sozialdemokrata batzuk? Ala ordezkatu egingo dituzte? Batetik, seinaleak ez dira positiboak. Laboristen sektarismo eta harrokeria oso errotuta dago. Baina, bestalde, antolakundeek beren burua berrasmatzeko gauza badira. Alabaina, Blairren garaira itzultzea edo Corbynen aroari jarraipena ematea baino zerbait gehiago behar da: XXI menderako jauzi kultural bat. Konektibitate, solidaritate eta oparotasun mundu harrigarri bat litzateke, egunsenti eta Urrezko Aro berri bat; sozialdemokrazia ez jendearentzat, baizik jendeak egina. Sozialdemokratek ulertuko ote dute garai berri honen espiritua, eta izango al dira beraren parte?

Neal Lawsonek iritzi politikoa lantzen du eta Compass presio-taldearen buru da. Bere artikulua aldizka The Guardian eta The New Statesman-en argitaratzen dira.

⁷ Britainia Handian hauteskunde-sisteman gehiengoaren araua da nagusi, hots, eremu bakoitzean boto gehien duenak ordezkartza guztia bereganatzen du.

⁸**James Keir Hardie** (1856/8/15 – 1915/9/26). Meatzaria zen, eta laster antolatzaile sindikal bilakatu zen. 1881ko Ayrshireko meatzetako greban izan zuen lidergoak ugazabak beldurtu egin zituen, eta hauek amore eman zuten etorkizuneko gatazkak saihestearren. 1892an independente gisa West Ham South-eko parlamentu-eserlekua irabazi eta gero Independent Labour Party-aren (ILP) sortzaileetako bat izan zen 1893an. 1900an sindikatuetan oinarria zuen Ordezkartza Laboristaren Komitea osatu zuen; honek gero Alderdi Laborista izena hartu zuen, eta honekin bat egin zuen aurrerago ILPk.